

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



HERNANI ORONA IDEO

Mendi Tour saioa gaur, eta Moodle jardunaldia etzi

Bi ekintza izango dira Orona Ideo eraikinean, egun hauetan. Batetik, Bilboko Mendi Tour zinemaldiko pelikula onenak jarriko dituzte gaur, 18:00etan hasita, Orona Fundazioak antolatuta: *The search for the Woo* eta *The Dawn Wall*. Sarrera doakoa da, baina erreserbatu behar da: 943 33 55 88. Eta bestetik, etzi, Moodle ikaskuntza tresnari buruzko jardunaldia antolatu du Mondragon Unibertsitateak. 34 euro dira, eta ize-na eman behar da: www.mondragon.edu/eu/mooteu19. ||

HERNANI AIREAREN KALITATEA

Hitzaldia bihar, azaltzeko airearen kalitateari buruzko ikerketaren txostena

Mattin Aldaia Ingurumen zinegotziak eskainiko du, 19:00etan, Biterin. Airearen kalitatearekin kezkatutako herritar talde batek antolatu du, txostenaren berri «modu ulergarriagoan» emateko.

HERNANIKO airearen kalitatearekin kezkatuta, bilerak egiten hasi zen herritar talde bat, *Arnasten dugun airea* hitzalditik abiatuta. Hain justu, beste hitzaldi bat antolatu dute bihar-ko, arratsaldeko 19:00etan Biterin, eta Mattin Aldaia Inguru-

men zinegotziak eskainiko du. Izan ere, hitzaldiaren helburua da, azaltzea airearen kalitateari buruzko ikerketaren txostenak jasotzen duena, baina «modu ulergarriagoan».

Kataluniako Unibertsitate Politeknikoak egin zuen iker-

keta, Hernaniko Udalak eskatuta. Ikerketaren emaitzak eta txostena, martxoan jakinarazi zituzten, eta www.hernani.eus webgunean daude ikusgai. Baina Hernani Aire Garbia taldetik diote, «oso luzea eta ulertzeko zaila» dela; horregatik eskatu

zioten hitzaldia eskaintzea, Ingurumen zinegotziari.

Herritar guztiei, gonbitea

Saioa irekia izango da, eta gairekin kezka duten herritar guztiak gonbidatu dituzte, «gure helburuak lortzeko». ||

HERNANI EUSKALTEGIA

Kafe Tertulia, gaur

Gunea garagardotegian jarri du zita Udal Euskaltegiak, gaur 17:00etan, Kafe Tertuliaren beste saio bat egiteko. ||

HERNANI LITERATURA

'Negra' liburuari buruz, gaur

Gaur egingo dute, maiatzeko literatur solasaldia, gaztelaniaz. Wendy Guerraren *Negra* liburuari buruz ariko dira, 19:30etan Udal Liburutegian, Amaia Garciak gidatuta. ||

ASTIGARRAGA-HERNANI TXIRRINDULARITZA

Garaipen haundia Lazkaon, Enekoitz Azparrenek

Aurreneko hamarretan sartu ziren Ibai Rodríguez eta Telmo Semperena ere, 5garren eta 7garren.

MOTA guztietako lasterketak izan zituzten asteburuan, txirrindulari hernaniar eta astigartarrek. Eta bereziki, jubenilen Lazkaoko Proban eman zuten maila ona, larunbatean. Garaipen haundia lortu zuen Enekoitz Azparren astigartarrak, Lazkaomendi gainean; 5garren izan zen Ibai Rodríguez hernaniarra, eta 7garren Telmo Semperena astigartarra.

Bederatzi laguneko ihesaldi batean sartu ziren Azparren eta Semperena, eta Olaberriako aurreneko aldapetan egin zuen ihes irabazleak, minutu erdiko aldearekin iristeko helmugara, erakustaldia emanaz. Mendiko sailkapena ere lortu zuen. Rodríguezek, berriz, atzetik aurrerako bidea egin zuen, tropeletik ihes eginda, bosgarren iristeko, ihesaldiko txirrindulari batzuk gaindituz; horien artean Semperena taldekidea,

azkeneko igoeran nekea nabaritu zuena. Gainera, taldekako garaipena lortu zuten biek, Donosti Berrirekin.

Hurrengo egunean, berriz, Gipuzkoa Klasika zeukaten joan Donostian, maila haundiarekin; baina nekea nabaritu zuten hiruek, eta soilik Rodríguez lortu zuen proba bukatzea, 50garren. Jaime Romerok, berriz, zorte txarra izan zuen, lasterketa hasieran erorita eta gurgil bat zulatuta. Esfortzu haundia egin behar izan zuen kilometro askotan, tropelera bueltatzeko; eta iristea lortu zuen arren, nekeak erretiratzerara behartu zuen, zirkuituko azkeneko bueltan.

Infantilak hirugarren, taldekako erlojupekoan

Txirrindulari alebin eta infantilek, berriz, Gipuzkoako Taldekako Erlojupeko Txapelketa



Enekoitz Azparren, zutik txapelarekin, Lazkaoko Proban podiumean. Belauniko, Donosti Berrikoak, Ibai Rodríguez eta Telmo Semperena tartean.

zeukaten larunbatean, Irunen. Eta infantil mailan, brontzeko domina lortu zuen Tasio Semperena astigartarrak, Donosti Berrirekin. II segundu azkarrago aritu zen Ampo, irabazlea.

Eta kadete mailakoek, azkenik, Ander Larrea Memoriala lehiatu zuten igandean, Gasteizen. Unax Urretabizkaia izan zen onena, 19garren helmugaratuta, parte hartu zuten hiru hernaniarren artean. 32garren

izan zen Aner Zilbeti, eta 42garren Ekhi Muñoz.

Gaurtik larunbatera, Bidasoako Itzulia lehiatuko dute 23 urtez azpikoek, eta Nafarroako Iturmendin izango dute zita, igandean 10:00etan. Infantil eta alebinek, Gipuzkoako Txapelketa daukate larunbatean Ezkion, 16:00etan. Kadeteak igandean ariko dira, 14:00etan Bizkaiako Abadiñon; eta jubenilak ere bai, 10:00etan Zarautzen. ||

GOIZUETA UDAKOLORE

Lore saltzailea herrian, gaur

Udakolore balkoi lehiaketa jarri du martxan Goizuetako Udalak, berriro; eta apaintzen hasteko, gaur dute loreak eskuratzeko aukera, herritarrek. Izan ere, lore saltzailea egongo da herrian, gaurko egunez. ||

HERNANI SAN JOANAK

Akelarre Txikirako, gaur ere aukera

Akelarre Txikia aterako da aurtien ere, San Joanetan; eta parte hartu nahi duten haurrek, gaur ere badute aukera, apuntatzeko. Atsegindegian egin behar da, 18:30etatik 20:00etara. Materiala, hilaren 15ean banatuko dute, 18:30etatik 19:30etara Atsegindegian bertan. ||

Robarte una noche
Zinea solasaldiarekin
FERNANDO VERA
TELMO IRURETA
GAUR _ 19:00 _ Biteri
Solasaldia elebietan / Zeinu hizkuntza
Aldi bateko itzulpena
Antolatzailea: Koxka Elkarte / Laguntzailea: Hernaniko Udala

Amaia
arrandegia
Arrainak
Itsaskiak
Fresko eta
izoztuak
943 55 07 52 / 650 53 87 72
Andre Kalea 34. 20120 HERNANI

Berogailua badankagu
OTSUA - ENEA
SAGARDOTEGIA
Sagardoa gure kontura
asteartetik ostiralera, ilunabarrean
Osiñaga auzoa, Hernani
Tel. 943 55 68 94



GAUR Ez da oso giro atsegina izango gaur. Mendebaldeko haizea zakar ibiliko da, eta laino asko izango dira zeruan. Gainera, baliteke egunaren hasieran eta arratsaldean, zaparrada txiki botatzea. Iluntzean, atertzeraz egingo du. **Min.11° / Max.20°**



BIHAR Hobera egingo du bihar, eta tarteka eguzkitsu egongo da, nahiz eta zeruan erdi- eta goi-mailako lainoak agertu. Eguerdian ugarituko dira lainoak bereziki, eta baliteke egunaren bukaeran euritara jotzea ere. Hego-mendebaldeko haize ahula ibiliko da. **Min.10° / Max.20°** (euskaime)



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauetz:** **Aldabe** Perkaitezgi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



ASTIGARRAGA-HERNANI EH BILDU

«Datorren legealdian, errealitate izango da gure mankomunitatea»

EH Bilduren Beterri-Buruntzako sei alkategaiek, nabarmendu «aukera paregabea» dela, eskualdeko herritarren «bizi-kalitatea hobetzeko».

AGERRALDIA egin zuten atzo, Lasarte-Oria, EH Bilduren Beterri-Buruntzako sei alkategaiek: Xabier Lertxundi (Hernani), Xabier Urdangarin (Astigarraga), Ainara De Miguel (Urnieta), Andoni Alvarez (Andoain), Jon Martin (Lasarte-Oria), eta Agurtzane Solaberrieta (Usurbil).

Eta nabarmendu zuten, datorren legealdian «errealitate» izango dela, Beterri-Buruntza eskualdeko mankomunitatea: «Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako eskualde bakarra gara, bartzan gaituen egitura juridiko-administratiborik ez duguna. Baina badira zortzi urte, lanean ari garela Udaletan, eskualdea batu, kohesionatu eta elkarlanean egitasmo eta jarduerak bideratzen. Legealdi honetan eman ditugu aurreneko pausoak, behingoz, mankomunitatea osatzeko, pleno guztien onarpenarekin».

Zentzu horretan, EH Bilduk «eskualdeak indartzearen eta euren arteko orekaren aldeko apustu argia» egiten duela nabarmendu zuten. Eta bide horretan, adierazi zuten argia izan dela aurreko legealdian, «EH Bilduko alkateen arteko elkarlana; besteak beste, mankomunitatea bultzatu, edota au-



Beterri-Buruntzako EH Bilduren sei alkategaiek, atzoko agerraldian.

tobus zerbitzuetako murrizketak salatzeke».

«Eskualdeko herritar guztien beharrei, erantzun berdina»

EH Bilduk azaldu du, hiru herri txiki eta hiru haundik osatzen dutela eskualdea, baliabide pertsonal, azpiegitura edota zerbitzu desberdinekin... «Mankomunitateak, gure eskualdeko herritar guztien beharrei, berdin erantzungo dieten baliabideak eskainiko dizkie. Gure sei herrietako biztanleak, maila bereko herritarrek izatea dugu helburu, herritarrek baitira gure politiken erdigune».

EH Bilduk uste du, mankomunitatea «aukera paregabea»

dela, Lanbideren enplegu planak herrietara ekartzeko, edo Aldundiak bideratzen dituen egitasmoak edota laguntzak jasotzeko; «azken finean, gure herrietako biztanleak, Gipuzkoako beste eskualdeetako pare bizi, eta zerbitzu eta aukera berdinak izateko».

Herritarren «bizi-kalitatea hobetzea» helburu, tokian tokiko baliabideak baliatu nahi ditu EH Bilduk, herritarren beharrei erantzuteko. Eta horretarako, behar haundienak dituzten kolektiboen parte hartzea bilatuko du, «beren bizitzak baldintzatzen eta antolatzen dituzten politiken diseinuan», aurreratu du. ||

JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Balantzea 40 urtetan

Alderdi Ederreko Asanbladako jubilatuta eta pentsionistek gonbidatuta, eta Donostiako udaletxeko pleno aretoa bete-betea zegoela, pentsioei eta beste zenbait konturi buruz hitz egin zizun Miren Etxezarretak, Barzelonako Unibertsitate Autonomoan Ekonomia Aplikatuaren katedradun emeritua denak.

Akademiko beteranoa ez da futurista; izan ere, bere zentzuzko *profeziak* denbora errealean dira, arazoa konpondu behar duten eta hitzaldira agertu ez ziren horien aurreikuspen faltagatik, orain, eta soluzio faltagatik, etorkizunerako.

Bere azkeneko liburuan, *Érase una vez... izenburua* daukana, *El cuento de las pensiones* azpigituarekin, datu eta erre-

ferentzietan azaltzen du, pentsioen krisi estrategikoaren atzean, sistema finantzarioaren interesak daudela.

Herritarren kontzientzia jotzen du formula bakartzat, sistema soziala mantendu eta hobetzeko; izan ere, gobernuak keinua egin badu ordainduko duela gaur egun kotizazio/prestazio balantze bideraezina ematen duena (gehi itsulapikoa, zer gertatu da 1978 eta 2008 urteen artean sobratutako diruarekin?), beldurrak egingo du gainerako lana, eta alfombra jarriko die, «etekina ateratzen diotenei pentsioen krisia deitutakoari; benetan sozialki eraikitako krisi bat dena, erakunde finantzarioentzat».

Etxezarretak soluzio bat proposatzen du: zerga bidez fi-

nantzatzea pentsioak, Estatuko gainerako gastuak bezala, eta Europako gobernu guztiek egiten duten moduan. Guztiek bai, baina zein neurritan? Espainiak %8a gastatzen du pentsioetan, eta horrek Europako azkeneko postuetan kokatzen gaitu, Portugal, Grezia edota Italiarekin batera... lau puntuko aldea ateratzen digutenak. Alemania (%25) eta Frantzia (%20) daude buru-buruan.

Desberdintasuna, edota soldata eta pentsioen prekaritatea haunditzen doazen bitartean, enpresen eta gobernu eta diputazioen oparoaldiak eragiten du, euskal sistema sozialaren desestruturazioa, estrukturatuta geratzea klaseen *erakin* bat bezala.

Iulen Lizaso Aldalur

HERNANI LITERATURA



Alicia Perez Gil eta Nahikari Diosdado, ostiraleko aurkezpenean.

Lanak herrikideen aurrera, Diosdadok

Urtarrilean argitaratu zituen bi liburu, Nahikari Diosdado idazle hernaniarrak: *Desollada* eta *Prácticas Mágicas*. Eta joan den ostiralean, herrikideen aurrean aurkeztu zituen biak, Udala Liburutegian. Alicia Perez Gil izan zuen lagun, *Irakurketa Jakintsua* tailerra eskainiz. ||

HERNANI BIGARREN ESKUKO AZOKA

Bizikleten azoka berezia, larunbatean

Berezia izango da Bigarren Eskuko Azoka, maiatzean. Larunbatean egingo dute, goizeko 10:30etatik 13:30etara, Urbietako kalean; eguraldi txarrarekin, Atsegindegian. Eta bizikletei eskainitakoa izango da. Horrela, goizeko 09:00etatik 10:30etara, entregatu ahalko dira bizikletak, plastikozko motoak, patineteak, patinak, kaskoak... Norberak jarriko du prezioa, 300 euro gehienez; eta 13:30etan pasa beharko da bila: saldu bada, dirua jasoko da, eta bestela, utzitakoa. ||

ASTIGARRAGA UDALA

Bi batzordek bilera, gaur eguerdian

Gaur eguerdian bilduko dira, Astigarragako Udaleko bi batzorde: aurrena, 13:30etan, Kultura Batzordeak egingo du bilera, kultur etxean; eta ondoren, 14:30etan, toki berean elkartuko da Euskara, Hezkuntza, Gazteria eta Jaiak Batzordea. ||

HERNANI XALAPARTA ELKARTEA

Lau partida bihar, mus txapelketak

Bihar jokatuko dira, Xalaparta elkartearen Mus Txapelketaren lau partida; honako hauek: Txema-Goyo/J.-J.; Xabi-Manu/Otegi-Bixente; Josemi-Lola/Jurgi-Pablo; eta Iñaki-Martin/Ruiz-Ruiz. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

JUAN URUZOLA AGIRRE

Beti izango zaitugu gogoan.

JUANJO ETA MANOLIREN KOADRILA

Hernanin, 2019ko maiatzaren 8an

IRAGARKI MERKEAK

Pisua salgai Hernaniko erdigunean; 2 gela, sukualdea, sala eta komuna. Egoera onean.
Deitu: 628 116 949

Hernaniko Etxeberri auzoan harategia duen janari denda bat alokatzen edo saltzen da jubilaria dela eta. Interesatuak **Deitu:** 689 290 923

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... **Deitu:** 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)